

AITOR GALDOS

"Garaipenak ezustean ailegatu dira"

24 URTE BESTERIK EZ DITU ETA HORIETAKO GEHIENAK TXIRRINDULARITZARI ESKAINI DIZKIO ERMUAR GAZTE HONEK. 20 URTEREKIN ITALIARA JAUZIA EGIN ZUEN BAINA HANDIK GUTXIRA BERRIZ ITZULI ZEN ETA DURANGOKO CAFES BAQUE-N ARITU DA AZKEN URTEOTAN. ORAIN ITALIAKO NIPPO TALDEAK PROFESIONAL MAILAN DEBUTA EGITEKO AUKERA ESKAINI DIO. DENBORALDIA HASI BAINO EZ DA EGIN ETA 2 GARAIPEN LORTU DITU DAGOENEKO. AZKEN BI ASTEOTAN ETXEAN IZAN DA ERORIKO BATEK ERAGINDAKO ZAURIAK SENDATZEN.



**-Lehen urtea profesionale-
tan eta jada 2 garaipen?**

Egia esateko neu ere harrituta gelditu naiz. Oraindik lasterketa gutxi korritu ditut, sasoi onena ere ez du lortu eta 2 garaipen lortzea ez da erreza. Ezustean harrapatu nau.

-Profesionaletara pausoa Italian...

Afizionatu mailan aritu ostean, profesional mailara emateko pausoa eskaini zidan Italiako Nippon taldeak. Abenduan hasi genuen aurre-denboraldia eta momentuz gauzak bide onetik doaz. Marokoko Itzulian egon naiz azken egunotan eta nahiz eta Italian korritzea nahiago nukeen, batipat nire dohaiak erakusteko, apurka-apurka aurre-

ra egin beharko da.

-Non izan dira garaipenak?

Bata, Suitzako klasika batean izan zen eta bestea, korritu berri dudana Marokoko Itzulian.

-Nori eskaini zenion garaipena?

Nire anaiaren semetxoa bezperan jaio zen eta berari eskaini nion, Aimar-i.

-Marokoko Itzulian erorikoa ere izan duzu...

Etapaz luzeenean izan zen. Ihes egindako taldetxo batean murgildu nintzen eta helmugarako 2 kilometro falta zirela erori nintzen. Azkenean uste baino arinagoa izan da.

-Bizimodua asko aldatu zaizu?

Etengabe bidaitzen nabil.

Ez naiz leku berean lau egun segidan egoteko kapaz. Etxebizitza finkorik ere ez daukat, hotelak bilakatu dira nire etxe. Gogorra da bizimodu hau, batipat etxetik urruti... iritsiko da etxetik gerturago egoteko aukera!.

-Doping kontuek zikindu dute txirrindularitza...

Zoritxarrez doping-a garaipen bat baino albiste garrantzitsuagoa bilakatu da. Nire ustez jende asko txirrindularitza izugarritzko kaltea egiten ari da. Gauzak baretik jakin orde, sasi jakintsu paper horiekin ez dira ohartzen nolako kaltea egiten dieten ez soilik txirrindularie, baizik eta txirrindularitzaren inguruan bizi diren zuzendari, sendagile,

eta gainontzekoei.

-Pantaniren heriotzaz zer diozu?

Haren inguruko batzuen iritzia jaso izan ditut Italian egon naizenean. Hurbileko jendeak bazekien aspaldian oker samar zebilela baina ez zuten horrelako amaierarik espero. Zoritxarrez azkenaldian egur larregi jaso zuela uste dut.

-Eta zuri dagokizunez, hurrengo erronkak?

Maiatzaren 2an banoa Ermutik. Esloveniako eta Japoniako itzulietan parte hartuko dut, ondoren Espainiako txapelketa, Nafarroako itzulia... Ea sasoi onena lortzeko kapaz naizen.

Asier Ibaibarriaga



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 71

943172665 ERMUA



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona